



# AKTA

## Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2006ko irailaren 26a, asteartea.

**LEKUA:** Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

**DEIALDIA:** Lehena

**HASIERA-ORDUA:** 19:05    **AMAIERA-ORDUA:** 19:27

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Ramon Etxeberria Aldaz

**Zinegotziak**

Eneko Olariaga Arruti, Noemi Ostolaza Arkauz, M. Jose San Sebastian Aranburu, Ainhoa Leunda San Sebastian, Martxiel Genoba Solabarrieta, Asier Yeregi Campos, Maria Elena Legarra Alfaro, Aurora Azkue Mujika, Eugenio Cotado Iturain eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

**Idazkari-Kontuhartzailea**

Jon Carrera Jauregi



## Aztergai zerrenda

1. Irakurtzea eta onartzea, egoki bada, 2006ko uztailaren 26ko ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
2. Onartzea behin betiko, egoki bada, 2005eko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen Aurrekontuaren Kontu Orokorra.
3. Onartzea, egoki bada, 2006ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen kredituen aldaketarako 3/2006 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
4. Onartzea, egoki bada, Ordenantza Fiskalen aldaketa 2007ko urtarrilaren 1etik hasita.
5. Onartzea, egoki bada, jendaurreko enkantean Orioko E.U.3.2.-ren H.J.E.3-ko –Hondartza– eremuaren Birzatatze Proiektuaren 2B8 partzelaren partaidetza zatiezinaren (% 29,09356) salmenta.
6. Onartzea, egoki bada, Orioko kirol dartsenan hiru eraikinen estruktura egiteko obren exekuzioaren egitasmoaren aldaketa, eta kontrata bidez exekuzioaren aurrekontua 123.768,18 eurotako izanik (B.E.Z. barne).
7. Esleitzea, egoki bada, “Orioko Alde Zaharrea Oinezkoen Irisgarritasunaren Hobekuntza” obren -1. Fasea- kontratazioa.
8. Onartzea, egoki bada, “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko” obrak exekutatzeko Egitasmo Teknikoa, GESTIUR, S.L.-k idatzia, eta kontrata bidez exekuzioaren aurrekontua 577.683,62 eurotako izanik (B.E.Z. barne).
9. Onartzea, egoki bada, “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko” obrak kontratatzeke Plegu Baldintza Administratibo



Partikularrak, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez.

- 10 Behin behineko onarpena ematea, egoki bada, Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen berrikuste eta egokitze txostenaren 4 Eremuaren –Aita Lertxundi– fitxa urbanistikoaren aldaketari.
11. Orioko Bake Epaitegiaren Bake Epaile titularren eta ordezkoren izendapenaren proposamena.
12. Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1. IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO UZTAILAREN 26KO OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

**ONARTZEA**, 2006ko uztailaren 26ko Ohiko Bilkuraren aktaren zirriborroa.

### **2. ONARTZEA BEHIN BETIKO, EGOKI BADA, 2005EKO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION UDAL HONEN AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA.**



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Kontuan hartuz indarrean dagoen legearen arabera, jendaurrean jarri direla Orioko Udalaren 2005eko urteko kontuak eta kontabilitatearen egoera orriak, eta horiekin batera, 2005eko Aurrekontuaren likidazioa, bere egiaztagiriekin eta kontuen batzorde bereziaren txostena. Jendaurreko epea hamabost (15) lanegunekoa izan dela, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, eta interesdunek hamabost lanegun izan dituztela ohar edota eragozpenak idatziz aurkezteko.

Kontuan hartuz aipatutako iragarkia 2006ko abuztuaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dela 146. zenbakian, eta akatsen zuzenketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dela 2006ko abuztuaren 18ko 156. zenbakian. Beraz, jendaurreko epea eta ohar edota eragozpenak aurkezteko epea 2006ko abuztuaren 19tik irailaren 5era artekoa izan da.

Kontuan hartuz epe horretan inork ez duela aurkeztu inolako ohar edota eragozpenik.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta informazio publikoaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

BEHIN BETIKO ONARTZEA Udal honen 2005eko ekitaldi ekonomikoari dagokion aurrekontuaren Kontu Orokorra, Aurrekontu Propioak eta Orio Garatzen S.L. Sozietate Publikoaren Aurrekontuek osatua.

### **3. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION UDAL HONEN KREDITUEN ALDAKETARAKO 3/2006 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Idazkari-Kontuhartzaileak igorritako txostenaren eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2006ko irailaren 22an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia



eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

1. **HASIERAKO ONARPENA EMATEA**, 2006ko ekitaldi ekonomikoari dagokion udal honen kredituen aldaketarako 3/2006 zenbakidun espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean, 668.045 €-ko kopuruan.

2. Indarrean dagoen araudiaren xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

*a) Erakutsita dagoen lekua:* Idazkaritza-kontuhartzailletza.

*b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea:* Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

*c) Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:* Toki Ogasunen Arautzailea den, abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten udalbatza-kideek.

*d) Inpugnatzeko arrazoiak:* Aipatu berri den legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.

*e) Aurkezteke bulegoa:* Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

*f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:* Udal Plenoa.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

#### **4. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA 2007KO URTARRILAREN 1ETIK HASITA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2006ko irailaren 22an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** 2007ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko diren Ordenantza Fiskalen aldaketari.

**2.-** Hartutako erabakia eta horretarako osatu den espedientea informazio publikora jartzen dira, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunak Arautzeari buruzkoak, 16.1 artikuluan xedatzen duena betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz. Hori guztia honako arauari jarraituz:

*a) Ikusgai dauden tokia:* Udaletxeko Idazkaritzan.

*b) Aztertzeko eta, kasua balitz, erreklamazioak aurkezteko epea:* 30 lanegunetako, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera kontatuta, bulego orduetan.

*c) Erreklamazioak aurkeztea zilegi zaienak:* Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 17. artikuluan aipatzen dituenak.

*d) Aurkezteko tokia:* Udaletxeko Sarreren Erregistro Nagusian. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio-Prozedura Erkideari buruzkoa) 38.4 artikuluan seinatzen dituen lekuetan ere aurkez daitezke.

*e) Errekurtsioa sartzeko organoa:* Udal Plenoa.

Behin informazio honen erregelamenduzko epea amaituta, inolako erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez bada, behin-betikotzat joko dira hartutako erabakiak eta aldatutako Ordenantzen eranskinak, beste erabakirik hartu beharrik izan gabe.

**5. ONARTZEA, EGOKI BADA, JENDAURREKO ENKANTEAN ORIOKO E.U.3.2.-REN H.J.E.3-KO –HONDARTZA– EREMUAREN**



**BIRZATITZEKO PROIEKTUAREN 2B8 PARTZELAREN PARTAIDETZA ZATIEZINAREN (% 29,09356) SALMENTA.**

Jarraian Udalbatzarrak 2006ko abuztuaren 18an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 156. zenbakian argitaratu zen tramitazioaren berri du. Tramitazio horretan jendaurreko enkantean Orioko E.U.3.2.-ren H.J.E.3-ko –Hondartza– eremuaren birzatatze proiektuaren 2B8 partzelaren partaidetza zatiezinaren (% 29,09356) salmenta argitaratzen da.

Izanik zabaldu zen epearen barruan lizitatzailerik bakarrik aurkeztu zela:

- ORIO HONDARTZA, S.L.

Ikusita kontratazio mahaiak jendaurreko enkantean Orioko E.U.3.2.-ren H.J.E.3-ko –Hondartza– eremuaren birzatatze proiektuaren 2B8 partzelaren partaidetza zatiezinaren (% 29,09356) salmenta kontratua esleitzeko lizitazioa Aiestaran jaunak ordezkatzeko duen **ORIO HONDARTZA, S.L.**-ri adjudikatzea proposatzen duela, eskaintza ekonomiko onena egin duelako, Baldintza Ekonomiko-Administratiboaren Pleguaren 12. artikulua ezartzen dituen zehaztapenen arabera.

Udal honetako Udalbatza jakinaren gainean geratzen da eta kontratazio mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

**LEHENENGO.**- Baliotzat **EMATEA** 2006ko irailaren 11n izan zen pleguen irekiera.

**BIGARREN.**- **BEHIN BETIKO ADJUDIKATZEA** jendaurreko enkantean Orioko E.U.3.2.-ren H.J.E.3-ko –Hondartza– eremuaren birzatatze proiektuaren 2B8 partzelaren partaidetza zatiezinaren (% 29,09356) salmenta kontratua, Aiestaran jaunak ordezkatzeko duen **ORIO HONDARTZA, S.L.**-ri, I.F.K. B-20901153, salmentaren prezioa **MILIOI BAT EHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU MILA ETA ZORTZIEHUN eurokoa (1.194.800 €) (B.E.Z. barne)** izanik.



**HIRUGARREN.- AHALMEN OSOA EMATEA** Tokiko Udalbatzaren Alkatetza-lehendakaritzari, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa, jendaurreko enkantean Orioko E.U.3.2.-ren H.J.E.3-ko –Hondartza– eremuaren birzatzeko proiektuaren 2B8 partzelaren partaidetza zatiezinarenean (% 29,09356) saltzeko beharrezko diren dokumentu pribatu zein publikoak sinatu ditzan, eta hori guztia, dagokion Jabego-erregistroan erabat izena eman arte.

**6. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KIROL DARTSENAN HIRU ERAIKINEN ESTRUKTURA EGITEKO OBREN EXEKUZIOAREN EGITASMOAREN ALDAKETA, ETA KONTRATA BIDEZ EXEKUZIOAREN AURREKONTUA 123.768,18 EUROTAKOA IZANIK (B.E.Z. BARNE).**

Jarraian Udalbatzarrak Orioko kirol dartsenan hiru eraikinen estruktura egiteko obren exekuzioaren egitasmoaren aldaketa onartzeko tramitazioaren berri du, eta kontrata bidez exekuzioaren aurrekontua 123.768,18 eurotako da (B.E.Z. barne), lanen adjudikatzailea den CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L. enpresak aurkeztua.

Ikusita Hirigintza, Nekazaritza eta Arrantza Batzorde Informatzaileak 2006ko irailaren 18an hartutako erabakia, bai eta Udal Arkitektoak igorritako Txosten Teknikoa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza, Nekazaritza eta Arrantza Batzorde Informatzaileak egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

**LEHENENGO.- ONARTZEA** Orioko kirol dartsenan hiru eraikinen estruktura egiteko obren exekuzioaren egitasmoaren aldaketa, eta kontrata bidez exekuzioaren aurrekontua 123.768,18 eurotako da (B.E.Z. barne), lanen adjudikatzailea den CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L. enpresak aurkeztua.

**BIGARREN.-** Ondorioz, Orioko kirol dartsenan hiru eraikinen estruktura egiteko obren exekuzio kontratuaren adjudikazioaren behin betiko prezioa, lanen adjudikatzailea den CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L. enpresaren alde,





**SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAIIKA euro ETA BERROGEITA HAMASEI zentimokoa (697.391,56 €) da –Gastu orokorrak, industria onura eta B.E.Z. barne–.**

**HIRUGARREN.- CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L.-ri ESKATZEA** abalaren handitzea 4.950,73 euroko kopuru ekonomikoagatik (123.768,18 x 0,04).

**LAUGARREN.-** Ebazpen hau **JAKINARAZTEA** interesdun guztiei, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkin ondorioetarako, egoki irizten dizkioten errekurtso legalak aipatuz.

## **7. ESLEITZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO ALDE ZAHARREAN OINEZKOEN IRISGARRITASUNAREN HOBKUNTZA” OBREN -1. FASEA- KONTRATAZIOA.**

Jarraian Udalbatzarrak 2006ko uztailaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 129. zenbakian argitaratu zen tramitazioaren berri du. Tramitazio horretan “Orioko Alde Zaharrea oinezkoen irisgarritasunaren hobekuntza” obren -1. fasea- exekuzioaren kontratazioa argitaratzen da, Egitasmo Teknikoaren arabera, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez.

Izanik zabaldu zen epearen barruan ondorengo lizitatzailleak aurkeztu zirela:

- A.B.E.E. (Aldi Baterako Enpresa-elkartea), enpresa hauek osatua, “URBANIZACIONES IRUÑA, S.A.” eta “CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A.”.

- FONORTE, S.A.

- OZIO, S.L.

Ikusita kontratazio mahaiak “Orioko Alde Zaharrea oinezkoen irisgarritasunaren hobekuntza” obren -1. fasea- exekuzioaren kontratazioa, Egitasmo Teknikoaren arabera, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa



bidez, Aldi Baterako Enpresa-elkarteari, “**URBANIZACIONES IRUÑA, S.A.**” eta “**CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A.**” enpresek osatua, adjudikatzea proposatzen duela, eskaintza ekonomiko onena egin duelako, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Pleguaren 9. artikulua ezartzen dituen zehaztapenen eta Udal Zerbitzu Teknikoen igorritako txostenaren arabera.

Udal honetako Udalbatza jakinaren gainean geratzen da eta kontratazio mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

**LEHENENGO.**- Balioztat **EMATEA** 2006ko abuztuaren 7an izan den pleguen irekiera.

**BIGARREN.**- **BEHIN BETIKO ADJUDIKATZEA** “Orioko Alde Zaharrearaino oinezkoen irisgarritasunaren hobekuntza” obren -1. fasea- exekuzioaren kontratazioa, Egitasmo Teknikoaren arabera, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez, Aldi Baterako Enpresa-elkarteari, “**URBANIZACIONES IRUÑA, S.A.**” eta “**CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A.**” enpresek osatua, obren adjudikazioaren prezioa **MILIOI BAT BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST MILA HIRUREHUN ETA LAU euro eta HIRUROGEITA HAMABI zentimo (1.275.304,72 €)** izanik –Gastu orokorrak, industria onura eta B.E.Z. barne–.

**HIRUGARREN.**- **ITZULTZEA** lizitatzailleek lehiaketa honetan aurkeztutako behin behineko fidantzak.

**LAUGARREN.**- Ebazpen hau **JAKINARAZTEA** interesdun guztiei, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkin ondorioetarako, egoki irizten dizkieten errekurso legalak aipatuz.

**8. ONARTZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO BARIKO SAN NIKOLAS ELIZAREN INGURUNEA URBANIZATZEKO” OBRAK EXEKUTATZEKO EGITASMO TEKNIKOA, GESTIUR, S.L.-K IDATZIA, ETA KONTRATA BIDEZ EXEKUZIOAREN AURREKONTUA 577.683,62 EUROTAKOA IZANIK (B.E.Z. BARNE).**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza, Nekazaritza eta Arrantza Batzorde Informatzaileak egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

**ONARTZEA** “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko” obrak exekutatzeko egitasmo teknikoa, GESTIUR, S.L.-k idatzia, eta kontrata bidez exekuzioaren aurrekontua 577.683,62 eurotako izanik (B.E.Z. barne).

**9. ONARTZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO BARIKO SAN NIKOLAS ELIZAREN INGURUNEA URBANIZATZEKO” OBRAK KONTRATATZEKO PLEGU BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK, PROIEKTU TEKNIKOAREN ARABERA, PROZEDURA IREKIZ, OHIKO TRAMITAZIOZ ETA LEHIAKETA BIDEZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza, Nekazaritza eta Arrantza Batzorde Informatzaileak egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

**MAHAI GAINEAN UZTEA** “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko” obrak kontratatzeke Plegu Baldintza Administratibo Partikularren onarpena, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez, Orioko Udalak aipatu obrak egiteko beharrezko diren lurren baliabide osoa **LORTU ARTE**.

**10. BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDUAREN ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSTE ETA EGOKITZE TXOSTENAREN 4 EREMUAREN –AITA LERTXUNDI– FITXA URBANISTIKOAREN ALDAKETARI.**



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Izanik informazio publikoaren tramitean zehar Gorka Aranegi Jaunaren aldetik, “DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL, S.L.” Merkatal Erakundearen izenean eta ordezkari gisa, alegazio bakar bat aurkeztu dela.

Ikusita Udal Arkitektoak igorritako txostena aurkeztutako alegazioa onartzeko proposatuz, kontuan izanda azken finean jabetza mugen kokaleku arazo bat planteatzen dela, eta ondorioz, jarraian aipatzen diren aprobetxamenduak proposatuz:

- Bizitegi aprobetxamendurako 3.105 m<sup>2</sup>.
- Merkataritza aprobetxamendurako 290 m<sup>2</sup>.
- Guztira aprobetxamenduak: 3.395 m<sup>2</sup>.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta Hirigintza Batzorde Informatzaileak 2006ko irailaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV), San Sebastian (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Yeregi (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO ZORTZI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Legarra (EA), Cotado (EA) eta Azkue (EA) zinegotzien abstentzio botoarekin, guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

1.- **BAIESTE** Gorka Aranegi Jaunak aurkeztutako alegazioa, “DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL, S.L.” Merkatal Erakundearen izenean eta ordezkari gisa.

2.- **BEHIN BEHINGOZ ONARTZEA** Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen berrikuste eta egokitzapen txostenari dagokion 4. eremuko –Aita Lertxundi– fitxa urbanistikoaren aldaketa.

3.- **IGORTZEA** Udalbatzarrak hartutako ebazpen honen ziurtagiri bat eta gai honen txosten administratiboa Gipuzkoako Foru Aldundira, Diputatuaren Kontseiluaren aldetik berariazko behin betiko onarpena lortzeko.



## **11. ORIOKO BAKE EPAITEGIAREN BAKE EPAILE TITULARRAREN ETA ORDEZKOAREN IZENDAPENAREN PROPOSAMENA.**

Lehendakaritzaren baimenarekin, azpian sinatzen duen idazkariak zirkunskripzio honetako Bake Epaille Titular eta ordezko Bake Epaille karguak betetzeko Udalerri honetako bizilagunen hautatze eta proposamen aplikagarriaren araudi legala irakurtzen du, bai eta gaur egun arte txostena osatzen duten diligentziak eta ekintzak ere.

Izanik 2006ko ekainaren 28an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 122. zenbakian publikatutako iragarkiaren eta Orioko Udaleko Iragarki Taulan publikatutako iragarkiaren bidez, Orioko Udalak jakinarazi zuen Botere Juridikoaren Lege Organikoaren 99 eta 103 artikuluen artean eta Bake Epailen ekainaren 7ko 3/95 Araudiak ezarritakoaren arabera, Udaleko Udalbatzarrari dagokiola hautatzea Bake Epaille Titular eta ordezko Bake Epaille izendatzeko pertsonak; interesdunek dagokion instantzia aurkeztu beharko dutela Udaleko Erregistro Orokorrean iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitau eguneko epean; interesdunek instantzian agertu beharko dute epea amaitu aurretik eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, eta era berean, instantzian alegatutako ziurtagirien egiaztapenak erantsi beharko dituzte, ezintasun edota bateraezintasunik duten egiaztatzeko; hautagaiek memoria labur bat erantsi beharko dute hautagai izateko egokitasuna aipatuz eta balorazio garaian kontuan hartzeko beharrezko ikusten dituzten beste zenbait alderdi; eta instantziak aurkezteko epea amaitu ondoren, Udaleko Udalbatzarrak eskabidea egin dutenen artean aukeratuko ditu Bake epaille titularra eta ordezkoa, beti ere ezarritako betebeharrak legalak betetzen badituzte, eta eskabiderik ez izanez gero, Udalbatzarrak bere aldetik libreki aukeratuko du, prozeduraren betebeharrak guztiak betez, eta ebazpena Jurisdikzio Organo eskudunari jakinaraziz.

Kontuan hartuz Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101.2 artikuluan ezarritakoaren arabera Udalbatzarraren eskuduntza dela Bake epaille titularra eta ordezko kargua hautatzeko proposamena adostea, ebazpena Udalbatza osatzen duten gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute.



Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, 2006ko irailaren 22an Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

1.- Felipe Arostegi Iburguren **AUKERATU ETA PROPOSATZEA** Orioko Bake Epaitegiko bake epaile titular gisa, Nortasun Agirian 15.102.669-H zenbakiduna, jubilatua, 69 urtekoa, telefono zenbakia 943 831 291, eta helbidea Estropalari Kalea, 20 – 1. C. Aukeratutako pertsona horrek propio onartu beharko du bake epaile izendapena eta, bestalde, zinpeko aitorten bat aurkeztu beharko du adieraziz gai dela aipatu Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102, 302, 303 eta 389 artikuluetan eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Araudian aurreikusitako kargu judizialak betetzeko eta ez daukala horretarako bateraezintasun arazorik.

2.- Santiago Zaldua Otegi **AUKERATU ETA PROPOSATZEA** Orioko Bake Epaitegiko bake epaile ordezkari gisa, Nortasun Agirian 15.869.162-J zenbakiduna, Gizarte Lanean Diplomatu, 57 urtekoa, telefono zenbakia 943 832 055, eta helbidea Urdaire Kalea, 5 – 3. Aukeratutako pertsona horrek propio onartu beharko du bake epaile izendapena eta, bestalde, zinpeko aitorten bat aurkeztu beharko du adieraziz gai dela aipatu Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102, 302, 303 eta 389 artikuluetan eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Araudian aurreikusitako kargu judizialak betetzeko eta ez daukala horretarako bateraezintasun arazorik.

3.- Bidaltzea Udalbatzaren erabaki honen ziurtagiri literala Bilboko Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusiaren Lehendakariari, plaza horiek betetzeko proposatutako pertsonen onarpen zuzenarekin eta kargu judizialak betetzeko ez daukatela ezgaitasun edota bateraezintasun arazorik adierazten duten deklarazioekin, dagozkion izendapenak bidera ditzan eta Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101.2 artikuluan ezarritakoa betez.

## **12. ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Ez zen eskari eta galderarik izan.

Eguneko Aztergai Zerrendatik kanpo eta Udalbatzarrak urgentziazkoa deklaratu ondoren, ondorengo puntuan aipatzen den **AKORDIO HAU ERABAKITZEN**



**DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

### **13. MOZIOA FLORIDAKO GOBERNUARI ESKATZEA PABLO IBAR ESPAINIAKO HERRITARRAREN EPAIKETA ERREPIKATU DEZALA.**

Azkenik Udalbatzar honek UDALBIDE Elkarlan Elkartearen Zuzendaritza Kontseiluak Zumaian 2006ko irailaren 6an hartutako akordioaren berri du. Akordio horretan UDALBIDEREkin erlazionatutako Udal guztiei Pablo Ibar-en kasuari buruzko mozio bat aurkeztea erabakitzen da, horrela erabakiz gero, Floridako Gobernuari jakinarazteko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

**ONARTZEA** mozio bat Floridako Gobernuari eskatuz Pablo Ibar espainiar herritarraren epaiketa berriz egiteko. Mozioak hitzez hitz honela dio:

*“Mozioa: FLORIDAKO GOBERNUARI ESKATZEA PABLO IBAR, ESPAINIAKO HERRITARRAREN EPAIKETA ERREPIKATU DEZALA.*

*Florida Estatuko gobernadoreari ondorengo eskariak helaraztea erabakitzen dugu:*

*1.- Orioko Udalak Florida estatuko gobernadore den Jeb Bush jaunari eskatzen dio berrikusi dezala Pablo Ibar Espainiako herritarraren kasua, eta epaiketa errepikatu dezala berme juridiko guztiekin.*

*2.- Orioko Udalak irmo aldarrikatzen du heriotza zigorraren aurka dagoela, hori ezartzea ankerra eta krudela delako.*

*3.- Orioko Udalaren jarrera honen berri ematea alde batetik, Espainiako Gobernu Presidenteari, Kanpo Arazoetako ministroari eta Diputatuen kongresuko*



# ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkuraren akta •

2006/09/26

*nahiz Senatuko presidenteei, Pablo Ibar Espainiako herritarra denez, bere aldeko ekintza instituzional eta diplomatikoak eskatzeko.*

*Bestalde, Pablo Ibarren euskal jatorria kontutan hartuz, euskal erakunde guztiei dei berezi bat egiten diegu, denon artean, hain oinarritzkoa den bizitzarako eskubidea defendatzeko beste saiakera bat egin dezagun.”*

Horrenbestez, eta publikoan zegoen inork hitza hartu ez dutenez, Alkate-Lehendakariak bilkurari amaiera emateko agintzen du, gaurko arratsaldeko zazpiak eta hogeita zazpi minutu izanik, eta erabakitako guztia jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen **ONTZAT EMANAREKIN**.

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**